

zabaldu

ehbildu

2022ko martxo



ehbilduzornotza.eus

Amorebieta-Etxanon kirol-gune handi bat eraikitzea proposatu du EH Bilduk

Zornotzako kirol azpiegitura ezberdinak kirol-gune handi batean batzea eskatu dugu udaletxean. **Non?** Tantorta eta Ixer artean, Lidl saltokiaren atzealdeko lursailean. **Zergatik?** Udalerria hazten ari da eta kirol zerbitzuetan dauden gabeziak nabarmenak dira. Aspalditik dugun arazoa da, baina Udal Gobernuak ez dio soluzio eraginkorrik ematen. Alderantziz, **azken hamarkadan dirutza xahutu du eta arazo berdinarekin jarraitzen dugu.**

Urgozo kiroldegia saskibaloitza taldeei zuzendutako pabilioia izango da eta aurten **5,5 milioi** gastatuko dituzte bere eraikuntzan. Halaber, Ganen padel eta tenis kantzak egingo dituzte, **4,5 milioi** euroko aurrekontuarekin. Gogoratu beharra dago 2010ean Larreako kiroldegia eraberritzeko **10 milioi** euro gastatu zituztela -hasiera batean 4 milioiko obra izango zela aurreikusitako bazuten ere-, eta berehala txiki geratu zela. Eta 2011n beste **2,2 milioi** gastatu zituzten Jauregi-barriako

frontoia eta bolatokia egiteko. Honi guztiari gehitu behar zaio Ixerreko kiroldegia bota egingo dutela. Beraz, zer hobetu da arlo honetan? Ezer gutxi. Hamabi urtetan, guztira, **22 milioi** eurotik gorako gastua egingo du Udalak eta duela hamar urteko arazo berdinekin segitzen dugu.

Testuinguru honetan, Urgozo eraikitzeke eta Gane eraberritzeko aurrekontua kirol-gune handi sortzeko erabilteke proposatu dugu. Gune horretan eraiki beharreko azpiegiturak Zornotzako **klubekin eta kirol talde ezberdinekin elkarlanean** landu beharko litzatekeela uste dugu. Ildo berean, kirol zerbitzuetan **herritarren beharrezko zeintzuk diren jakitea** ezinbestekotzat jotzen dugu, eta horretarako ikerketa bat egin beharko litzateke. Herriko kirol eragileekin elkarlanean eta herritarrak kontuan hartuta soilik lortu daiteke Amorebieta-Etxanon kirolaren arloan dituen beharrezkoak asetzea.



*En 2010, el Gobierno Municipal del PNV se gastó **12,2 millones de euros** en la reforma del polideportivo de Larrea y en la construcción de un frontón y un bolatoki en Jauregi-barria; y ahora pretende destinar **otros 10 millones** a la construcción de un pabellón de baloncesto (Urgozo) en Betarragane y en varias pistas de tenis y pádel en Gane, mientras tiran abajo el polideportivo de Ixer.*

*La realidad es que después de 12 años de gastos millonarios siguen **sin cubrir las necesidades de clubes, asociaciones deportivas y ciudadanía**, y por eso EH Bildu ha propuesto*

*en el Ayuntamiento dirigir parte de las inversiones a la **construcción de un gran complejo deportivo** que albergaría diferentes infraestructuras deportivas en el terreno situado tras el centro comercial de Lidl, entre los barrios de Tantorta e Ixer.*

*En EH Bildu tenemos claro que este proyecto debería ser elaborado junto con los clubes y las asociaciones deportivas y teniendo en cuenta los servicios que reclaman las y los vecinos de Amorebieta-Etxano, para lo cual habría que realizar previamente **un estudio informativo** completo y exhaustivo.*

¿Sabías que...

El pasado 19 de enero las y los representantes de la ciudadanía en el Ayuntamiento nos enteramos por la prensa que la tercera etapa del Tour de Francia de 2023 partirá de Amorebieta-Etxano. Preguntamos sobre este importante evento al Gobierno Municipal y nos aseguraron que no sabían nada y que ellos también tuvieron conocimiento de la noticia a través de los medios comunicación.

Pero ¿sabías que el pasado mes de noviembre el director del Tour, Christian Prudhomme, estuvo junto al alcalde Andoni Agirrebeitia y el diputado general de Bizkaia, Unai Rementería, en la inauguración del inicio de las obras del bidegorri que unirá Amorebieta con Iurreta y Durango? ¿Casualidad? Obviamente, no. Exigimos al PNV que actúe con transparencia ante la ciudadanía.



El PNV y el PSE pudieron haber evitado el derribo del Palacete de Forjas

El Gobierno municipal del PNV y PSE tuvo a su disposición **alternativas e instrumentos legales** para evitar el derribo del Palacio de las Forjas, que se llevó a cabo en octubre de 2021, pero no las utilizó. El anteproyecto del **Plan General de Ordenación Urbana** de Amorebieta-Etxano calificaba como patrimonio histórico el edificio de Forjas y, por tanto, no podría ser demolido.

Asimismo, con esta autorización de derribo, se vulneró la **Ley de Protección del Patrimonio Cultural** aprobada por el Parlamento Vasco en 2019, que delega en los ayuntamientos la competencia para otorgar la calificación de patrimonio cultural.

El edificio de Forjas fue utilizado como **Gaztetxe** por la juventud del pueblo. Pero también pudo haber sido la **Casa de la Mujer**, que hubiese servido como punto de encuentro

del feminismo. O pudo haberse convertido en un **espacio multiusos** donde celebrar diferentes actividades sociales y culturales. Sin embargo, el Gobierno municipal prefirió echar abajo este edificio histórico en lugar de declararlo patrimonio histórico y ponerlo a disposición de las y los vecinos de Amorebieta-Etxano.

A lo largo de estos últimos años han desaparecido un buen número de casas y edificios singulares que formaban parte del patrimonio de Amorebieta-Etxano por su singularidad e interés, debido a la **especulación urbanística** o por una insuficiente política municipal de protección del Patrimonio. Los cargos del PNV se presentan ante la ciudadanía como “buenos gestores”, pero los pueblos no se construyen destruyendo patrimonios históricos y culturales.





Zornotzako Udal Gobernuak autoritarismoaren aldeko hautua egin du eta adierazpen askatasuna urratzen ari da muralak ezabatuz



Amorebieta-Etxanoko Udal Gobernuak **artisten eta herri mugimenduen aurka** ari da. Adierazpen artistikoak eta gustatzen ez zaizkion mezuak zentsuratzen ditu. Jarrera lotsagarria eta onartezina izaten ari da.

Joan den udan Martz grafitigile zornotzarrari **2.300 euroko isuna** jarri zioten eta bere obra guztiak kendu zituzten herriko kaleetatik. Ondoren, Guardia Zibilak **Saioa Agirreri egindako torturak eta sexu-erasoak** salatzeke Talde Feministak margotutako murala ezabatu zuten.

Kalean egiten diren aldarrikapenak, salaketak, kanpaina informatiboak **nahiz adierazpen artistikoak zentsuratzen ditu** Udal Gobernuak: mural artistikoak, indarkeria matxistaren kontrako mezuak, informazio kartelak... Dena kentzen dute. Baina herri mugimenduaren komunikazio esparrua kalea da eta Udal Gobernuak ez da inor zer den polita edo zatarra, garbia edo zikina, erabakitzeke. **Adierazpen askatasuna oinarrizko eskubidea** da eta iritzi subjektiboan gainetik dago.



Hau guztia salatzeaz gain, ahalik eta adostasun handienarekin **Garbiketako Udal Ordenantza berritzea** proposatu genuen osoko bilkuran, araudia zaharkituta geratu delako -1995. urtekoa da- eta adierazpen askatasuna bermatu dadin. Hala ere, EAJk argi utzi zigun ez dutela ezer aldatuko, eurek **gehiengoa dutelako** eta gu sei zinegotzi "bakarrik" garelako. Horixe izan zen jeltzaleen erantzuna. Horixe da EAJren kudeatzeko modua: **inposizioa**.



Zornotzako ostalaritza eta merkataritza sustatzeko EH Bilduren proposamena



Pandemiak kalte handia egin dio, besteak beste, Amorebieta-Etxanoko merkataritzari eta ostalaritzari. Gauzak horrela, EH Bilduk ondoko laguntzak proposatu ditu udaletxean herriko dendei eta tabernei laguntzeko:

- **60.000 euroko laguntza berri bat ostalaritzarako:**
 - 1000 euro, gaueko aisialdiko (pubak eta diskotekak) ostalarientzat.
 - 700 euro, hiru langile baino gehiago dituzten ostalarientzat.
 - 500 euro, bat, bi edo hiru langile dituzten ostalarientzat.
- **Amorebonoaren kanpaina berriro martxan jartzea,** ostalaritzarako nahiz dendetarako.
- **Terrazei buruzko araudi berri bat egitea.** 2021eko urtarrilean, herriko hainbat eragilerekin batera terrazen araudi berri bat berrikusteko eskaera egin genuen, baina Udalak oraindik ez du ezer egin eta berehala lantzeko eskatu dugu.
- **Impulsar una nueva ayuda de 60.000 euros a la hostelería:**
 - 1000 euros para las y los hosteleros del ocio nocturno (pubs y discotecas).
 - 700 euros para los establecimientos hosteleros con más de tres empleadas o empleados.
 - 500 euros para los establecimientos hosteleros que cuenten con entre 1-3 empleadas o empleados.
- **Activar la campaña de los “Amorebonos”,** tanto para la hostelería como para el comercio local.
- **Elaborar una nueva normativa de terrazas.** En enero de 2021 hicimos una petición para analizar, junto con distintos agentes del pueblo, una nueva normativa de terrazas. Exigimos al Gobierno Municipal la inmediata puesta marcha de la iniciativa.



Kalitatezko osasun zerbitzu publikoa, orain!

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako osasun sektorean protestak eta lanuzteak egin dituzte, Osakidetzan egiten ari diren **murrizketak salatzeko, lantaldeak indartzea aldarrikatzeko eta osasungintzara baliabide gehiago bideratu ditzatela eskatzeko.** Azken finean, lanbaldintza duinak eskatzen dituzte, herritarrei kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko. EH Bilduko ordezkariok **Zornotzako osasun zentroaren aurrean** egindako mobilizazioetan parte hartu dugu, osasun sektoreko langileei gure babesa adierazteko eta beraien aldarrikapenekin bat egiten dugulako.

zabaldu
Zure etxeko atarian eta sarean
ehbildu
Amorebieta-Etxano



☎ 688 837 777
✉ zornotza.ehbildu@gmail.com

Sare sozialetan:



ehbilduzornotza.eus